

**2012KO ABENDUAREN 20AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeia.

**HILABETEA:** Abendua.

**URTEA:** Bi mila eta hamabi.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:** Aitor Larburu Izaguirre  
M<sup>a</sup> Mar Celaya Gonzalez  
Cecilia Herrador Garin  
Iñaki Saldaña Herrero  
M<sup>a</sup> Luisa Valles Fernandez  
Leire Artola Ugalde  
Iñigo Arrese Artabe  
Encarna Arrieta Telleria  
Eva Diaz del Rio  
Alfonso Segade Gonzalez  
Ana María Crespo Blanco  
Josi Insausti Mujika  
Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEA:** Asier Sarriegui Zumarraga  
Aitor Aldasoro Iturbe

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

## **1.- AURREKO AKTA.** 2012ko azaroaren 22 aktaren onespina.

Ezagutzera eman ondoren, 2012ko azaroaren 22ko akta, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- ZINEGOTZI KARGUAREN JABETZA HARTZEA:** Garbiñe Zurutuza Fernández.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengoa dio: “UNAI BAZTARRIKA OTEGI jaunak zinegotzi karguaren errenuntzia aurkeztu ondoren, 2012ko urriaren 11n egindako Plenoan errenuntzia hori onartu zen eta Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatu zitzaion, legalki zinegotzi kargua hartzea dagokion hautagaiaren alde bidezkoa den egiaztatzea emateko. 2012ko azaroaren 22ko datarekin, GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ andrearen alde emandako kredentziala jaso da.

GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ andreak, bateraezintasun eta ondasunen aitortzea aurkeztu du eta orain egin behar duena da zinegotzi karguaren jabetza hartu, apirilaren 5eko 707/1979 Erret Dekretuaren bidez ezarritako zin-egite formula baieztatuz.”

Jarraian, Alkate jaunak, GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ andreaki legez ezarritako zin-egite formula irakurri dio, hau da:

“¿Zin egiten al duzu, zinegotzi karguaren obligazioak finko beteko dituzula, erregeari leial izanez eta Konstituzioa Estatuko oinarritzko arau legez betez eta bete araziz ?.

GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ andreak baieztatu egin du eta horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza hartu du.

## **3.- APARTEKO ORDAINSARIRAKO KREDITUA EZ ERABILTZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Alkate jaunak (BILDU), hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- 2012ko abenduko aparteko ordainsarien ordainketarako aurreikusitako kredituak ez erabiltzeko akordioa.

### **AURREKARIAK**

20/2012 Errege Lege Dekretuaren, uztailaren 13koa, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa, 2. artikuluko 1 atalean xedatzen denez, sektore publikoko langileei abenduan jaso beharreko aparteko ordainsariaren kopuruan murriztuko zaizkie ordainsariak 2012an.

*Gainera, aipatutako artikulua 4. atalak xedatutakoaren arabera, aparteko ordainsaria eta berariazko osagarriaren ordainsari gehigarriak edo ordainsari gehigarri baliokideak kentzearen ondoriozko diru kopuruak pentsio-planetara edo erretiroaren estaldura barne hartzen duten aseguru kolektiboko kontratuetara ekarpenak egiteko erabiliko dira geroko ekitaldietan; betiere 2/2012 Lege Organikoan, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoan, ezarritakoa eta aurrekontuei buruzko legeetan erabakitakoa beteta.*

*Hau guztia ikusirik, Hazienda Batzordeak Udalbatzari egiten dio ondorengo*

### AKORDIO PROPOSAMENA

*1.- 205.423,21 eurotan (Udala: 153.851,74 €, Antzizar Kirolaren Udal Erakundea: 9.048,66€, Euskaltegia: 16.448,79 €, Musika Eskola: 26.074,02 €) , abenduko aparteko ordainsarien ordainketarako aurreikusitako kreditua ibilgetzea. Honen ondorioak dira:*

*a) Aipatutako kreditua ez erabiltzea, erabilgarri ezina deklaratu.*

*b) Erabilgarri ezinaren deklarazioak, ez du kredituaren baliogabetzea ondorioztatuko, baina erabilgarri ezina izendatutako saldoaren kargura ezin izango dira baimendu gastuak ez eta transferentziak ere eta kopuru hori ezin izango da hurrengo urteko aurrekontuan txertatu.*

*2.- Kreditu hauek, pentsio-planetara edo erretiroaren estaldura barne hartzen duten aseguru kolektiboko kontratuetara ekarpenak egiteko ondorengo ekitaldietan lotzea, beti ere 2/2012 Lege Organikoan, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoan, ezarritakoa eta aurrekontuei buruzko legeetan erabakitakoa betez eta beste helburu batetarako erabili ahal ezinik, ez aurtengo ekitaldian ez eta ondorengo ekitaldietan ere.*

*3.- Erabaki hau, Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordeztara bidaltzea.”*

Alkateak azaldu du, lehenengo puntuan akatsa dagoela, bere soldata eta bigarren alkateordearena kontutan izan direlako eta horiek, nahiz eta beraiek ere ez kobratzea erabaki (langileen tratamendu berdina jarraitu nahi dute), diru kopuru horietan ez dira kontutan izan behar. Beraz, 205. 423,21 € esaten duen tokian, 198.844,07 € esan behar du eta 153.851,74 esaten duen tokian, 147.272,60 € esan behar du.

Jarraian Alkateak ondorengo adierazi du: “Onartezina da ere neurri horiek aplikatzeko erabili duten modua, dekretuz inorekin kontatu gabe eta sekulako jazarpen prozesua irekiz dekretuari aurre egin nahi dion edonori.

Bide honek argi erakusten du Euskal Herriak ez duela egoerari aurre egiteko inolako autonomia ezta burujabetza aukerarik, beste hainbat alorretan bezala gehiengo osotik eta epaileen mehatxutik gobernatzen duen PP-k denak hankapean jarri gaituelarik.

Bidezkoak ikusten ditugu beraz enplegatu eta langileen haserre eta mobilizazioak, burujabetza ekonomikoaren zanpaketaren aurka, langileen eskubideen defentsan eta inposaketari aurre egiteko alboan izango gaituelarik.

Azkenik, argi utzi nahi dugu ez dugula onartuko egoera hau inork desitxuratzea. Udal Gobernu hau ez da egoera hau sortzearen arduradun eta gainera irtenbideak bilatzeko ausardia eta erabakiarekin gatoz.

Ez dugu onartuko gauzak beste era batera egin behar zirela esatea eta Gobernuko kideok kargugabetze eta inhabilitazio prozesu batetan sartzea, eta hori egin ez izanagatik, egoeraren errudun gisa gu seinalatzea. Inork ez dezala arerioa non dagoen ahaztu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, langileen ordezkariak hitza eskatu dio Alkate jaunari eta horretarako baimena emanda gero, hau irakurri du:

*“Beasaingo udal langileok udal batza honetan, zerbitzu publikoek sufritzen dituzten inposaturiko murrizketak salatu nahi ditugu.*

*Bide batez, bertan ordezkatuta zaudeten alderdi politiko guztiei, dekretu bidez Madrildik inposatzen ari diren murrizketei aurre egiteko eskatzen dizuegu.*

*KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK nahi ditugulako, hainbat hamarkadetako borrokaz lortutako eskubideen urraketa gelditu nahi dugulako, kalitatezko zerbitzu publikoa herritarren eskubidea delako eta zerbitzu publikoan lan egiten dugun langileen eskubideak bermatuta ikusi nahi ditugulako. Hitz batean esanda, ZERBITZU PUBLIKO DUIN, UNIBERTSAL ETA DOHAKOAK nahi ditugulako.*

*Jakin dezazuen, aipaturiko helburu hauek lortzeko borrokan jarraituko dugula eta bertan ordezkatuta zaudeten alderdi politikoen ordezkartzari helburu hauek lortzeko bidean pausoak emateko dei egiten dizuegula. Prest al zaudete zerbitzu publikoen defentsan aritzeko? Guztion artean lortuko dugu!!*

**MURRIZKETARIK EZ!!**

**KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKO DUIN, UNIBERTSAL ETA DOHAKOAK!!!**

Jarraian, Enpresa Batzordeak adierazi du, langileei ez zaiela soldata eguneratu eta orain, gabonetako aparteko ordainketa ere ez dutela jasoko. Aldiz, zinegotziak bileretara joateagatik onartuta dituzten asignazioak 2012ko urtarrilaren 1eko datarekin eguneratu zituztela. Talde guztiei eskatu die gai honen inguruan iritzia emateko.

Alkate jaunak (BILDU): “Liberatuta gaudenoi ez zaigu soldata ezertxo ere igo.”

Beste taldeek ez dute ezer erantzun.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da hazienda batzordeko proposamena.

#### **4.- ZINEKO SARRERAREN ABONO-TASA**

Alkate jaunak (BILDU): kultura batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Zineko bonuaren kontzeptu aldaketa.**

#### **Aurrekariak:**

*2012ko apirilaren 23an Gobernu Batzordeak onartutako baldintza pleguetan hilabeteko bonuaren prezioa 12€koa izango zela jaso zen eta Udal Batzak onartutako tasetan ere, horrelaxe jaso dago.*

#### **Proposamena:**

*Irailetik abendurako ibilbidean, ordea, hilabetekoa kontzeptua aldatu beharra ikusten da eta zine emanaldiko jartzea, izan ere, ibilbide horretan ez da ikusi erabiltzaile asko erakarri dituenik hilabeteko bonu sistema horrek. Eta bestalde, erabiltzaile eta beste herrietako teknikariek hitz egin ondoren, zine emanaldikoak gehiago erakarriko duela ikusi da.*

*Proposatzen den tasa berria, 5 emanaldiko 15€ eta 2013ko urtarrietik aurrera aplikatuko litzateke.*

*Ondorioz, 5 emanaldiko 15€ kobratzea proposatzen dio Kultura eta Euskara batzordeak Beasaingo Udaleko Osoko bilkurari horrela onar dezan.”*

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da kultura batzordeko proposamena.

**5.- MOZIOA.** Alkateak aurkezten duen CAFeko langileen mozioa, enpleguari buruzkoa.

Alkate jaunak mozioa irakurri du:

#### **“GAURKO BORROKA BIHARKO ENPLEGUA**

*Jakina da dagoeneko, CAFeko enpresa zuzendaritzak, Beasainen egoitza soziala kokatuta duen baino Goierri eskualde guztian, zein Gipuzkoa osoan ikaragarritzko garrantzia daukan CAF enpresan Aldi Baterako Etendura Espedientea inposatzeko saiakera bertan behera utzi duela. Enpresa zuzendaritzak gainera, hasieratik enpresa batzordetik eskatzen zitzaion bezala, planteatzen zen ERE honi, alternatibak bilatzeko*

*eta etorkizunean enpleguaren inguruan langileen ordezkariekin eseri eta akordioak bilatzeko bere konpromisoa adierazi du.*

*Langileon aldetik argi geratu da ERE hau ez zela beharrezkoa eta ERE honek alternatibak zituela. Langileak batasunean eramandako borrokari eskerrak lortu dugula Enpresako Zuzendaritzaren jarrera aldaketa.*

*Borroka gogorra izan da denontzat. Baina positibotzat baloratzen ditugu enpresak etorkizunean enplegua defendatzeari begira hartu duen erabakia eta gaur egun alternatiben inguruan hitz egiteko prestutasuna agertu izana.*

*Hain zuzen ere, erakutsi dugun borrokarako grinak eta akordioetara iristeko prestutasunak eraman gaitu egoera honetara. Bide horretan herritarren eta hainbat udalen zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik izan dugun elkartasuna eskertu nahiko genuke.*

*CAFeko langileok bizi izan dugun egoera, beste lantegi askotan hainbat langile pairatzen ari dira. Orokortuta dagoen krisi honen ondorioz, baino baita, erreforma laboralak eragiten dituen egoerek hausnarketa bat egitera eraman beharko gintuzke. Guk, CAFen lortu dugun akordioaren bidea, beste lantegi askotara zabaldu daitekeela iruditzen zaigu. Gure ustez inposizioa, erreforma laborala eta EREak ez dira irtenbide egokiak eta akordioaren bideak ireki behar dira langile eta enpresari eta instituzioen artean.*

***Horregatik udal honi eskatzen diogu gure eskualdean eman daitezkeen horrelako egoeren aurrean saiatu dadila interlokuzio lanak egiten. Inposizioaren bidea baztertu, langileekin adostasunetara iritsi eta denon artean egoera berezi hauei irtenbide egokiak emateko.***

*Denok osatzen dugu herria, denok Gipuzkoa eta denok Euskal Herria. Adostu ditzagun guztion artean zein izan behar duten irtenbideak.”*

Alkate jaunak: “Atsegin handiz hartu dugu CAFeko zuzendaritzak hartu duen erabakia, izan ere mahai baten inguruan arazoak konpontzen saiaturiko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “El partido Popular valora positivamente la participación de todas las instituciones. Entendemos que es prioritario el apoyo al marco laboral existente.

Esta moción tenía sentido cuando existía el ERE. Ahora no, luego no debería traerse a Pleno.

Mi postura será la de la abstención.”

Alkate jaunak (BILDU): “Le dimos entrada y aunque se haya retirado el ERE, consideramos que debe tratarse.”

Jarraian, CAF enpresako enpresa batzordearen ordezkariak hitza eskatu du eta Alkate jaunak eman ondoren, adierazi du egin dituzten mobilizazio eta ekintzekin ERE bertan behera uztea bultzatu dutela eta zorionez enpresa-zuzendaritzak beste erabaki bat hartu duela.

Beste enpresa batzuei ere dei egiten die honelako inizatibak hartzeko.

Leire Artola andreak (EAJ), esan du mozioaren puntu batzuekin eta azalpenarekin ez daudela ados, baina eskaerarekin bai eta horren ondorioz, mozioa onartu egingo dutela.

CAFeko enpresa batzordeak galdetutako desadostasunari buruz, Leire Artola andreak erantzun du erabilitako formekin ez daudela ados, ezin delako abasailatuz kalera atera (zaratak, eztandak, etab...)

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)  
Aurkako botoak: 0  
Abstentzioak: 1 (PP)  
Etorri gabeak: 2

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

## **6.- GARINGO ERREGIDOREA IZENDATZEA.** Kontu ematea

Alkatea jaunak ondorengo Ebazpenaren berri eman du:

**“Gaia: GARIN auzoko erregidorea izendatzea.**

### **AURREKARIAK**

*2012ko azaroaren 17an, Garingo auzoan ondorengo bizilagunak bildu ziren:*

- *Jose Ignacio Aramburu.*
- *Juan Mugika.*
- *Asensio Ormazabal.*
- *Jose Ignacio Lasa.*
- *Jesús M<sup>a</sup> Lasa.*
- *Iñaki Lasa.*
- *Jose Angel Lizarralde.*
- *Fernando Luque.*
- *Iñigo Andreu.*

- Jose Francisco Múgica.
- Justo M<sup>a</sup> Mugika.

*Bileraren helburua auzoko erregidore berria izendatzea eta azken urteotan erregidorea izan den, Jose Ignacio Aramburu jauna ordezkatzeko izan zen.*

*Izendapenerako ez zen bozketarik egin denak ados zeudelako, Garingo erregidore berria JOSE FRANCISCO MUGICA ARIZMENDI jauna, izendatzeko. Ekintza honetan bertan berak, karguaren jabetza hartu zuen.*

*Aldi berean, auzorako interesa duten gaiak tratatzeko batzordea eratzea erabaki zen. Batzorde horretako kideak hauek dira:*

*Jose Francisco Mugika, Iñigo Andreu y Jesús M<sup>a</sup> Lasa.*

*Horren ondorioz, Alkatea naizen honek egun indarrean dauden legeriak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,*

### **EBAZTEN DUT**

**Lehenik.** *Garingo auzokideak hartutako erabakia onartzea eta horren ondorioz, JOSE FRANCISCO MUGICA ARIZMENDI jauna izendatzea, Garin auzoko erregidore.*

**Bigarren.** *Ebazpen honen berri Udalbatza Osoari ematea, eman eta gero egiten duen lehenengo bileran.”*

**7.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.** 2012ko azaroaren 19tik abenduaren 15erarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira Alkateak, 2012ko azaroaren 19tik abenduaren 15erarte emandako Ebazpenak.

### **8.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

#### **MURRIZKETAK**

Enpresa Batzordeko ordezkariak, talde politiko bakoitzari galdetu dio ea zer iruditzen zaien Dekretu bidez langileei murrizketak inposatzea eta aldiz udal zinegotzien asignazioak %2,4 igotzea.

Julio Herreros jaunak (PP): “Estoy con la Ley.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Desconocía el dato, pero no es ético y tenéis razón.”

Alkate jaunak (BILDU): “Aurrekontuetan aurreikusiko da.”



Enpresa batzordeko beste kide batek adierazi du, legearen arabera igoera hori izateko aukera dutela, baina etikoki...

Josi Insausti jaunak (H1): "Mi propuesta será que al elaborar los presupuestos se plantee entre todos los grupos."

Enpresa batzordeak eskatu du orain kobratu behar ez den igoera gordeta edukitzeko, aukera dagoenean kobratu ahal izateko eta orduan ez esateko dirurik ez dagoela.

## DOLAREA

Publikoan dagoen pertsona batek galdetu du ea zergatik Udalak hainbeste babesa ematen dio Dolarea hotelari eta zergatik Aitor Larburu eta Aitor Aldasoro joaten diren Ertzainarengana hotelaren aurrean manifestatzea galerazteko. Aitor Aldasororena ez zaiola harritzen dio, baina bai, ordea Aitor Larbururena.

Hitz egiten duena beldur da, hurrengo ondorioa emaztea lanetik kaleratzea izango dela.

Alkate jaunak (BILDU): "Ez dute uste Dolarea hotelari inolako mesederik egin diogunik, ez alde eta ez aurka. Beasaingo hotel guztiekin berdin jokatzeko saiatzen gara."

Alkateak esan du hainbat bilera egin dituztela, KUTXA, Dolarea hotela ustiatzen duenarekin eta orain hitz egin duenarekin, baina momentuz gaia geldirik dagoela.

Kaltetua suertatu denak ihardetsi du, etxea galdu duela eta hurrengo izango dela bere emaztea lanetik botatzea. Gai honek irtenbide txarra izango duela adierazten du eta gobernu taldeari "eskuak garbitzea" leporatu dio.

Aitor Larburu jaunak (BILDU): "Fede onez gai honetan sartu ginen laguntzeko asmoarekin eta azkenean gure aurkako zerbait bihurtu da."

## USURBE ANTZOKIA

Josi Insausti jaunak (H1): "En el pleno del 11-10-2012, en el capítulo de ruegos y preguntas, se preguntó por la situación en la que había quedado una de las trabajadoras del cine. Se respondió que se había hecho todo lo posible y que se entendía que no había habido ningún despido. Además Aitor Larburu dijo si estábamos pidiendo que se pagara por no trabajar o que a la empresa se le pagara por dar un servicio, sin prestarlo realmente."

Alkate jaunak (BILDU): “Ondo kudeatu zela eta berriro ere horrela egingo genuela esan zen.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Lo cierto es que ha habido un despido improcedente. El tiempo nos ha dado la razón. En el acto de conciliación celebrado el día de hoy se reconoce que ha existido tal despido y que ha sido improcedente. La trabajadora se incorporará a su trabajo el día 1 de enero de 2013.

Pediríamos que en adelante, si hay riesgo de que se produzcan situaciones semejantes, actuemos conjuntamente para poder posibilitar soluciones y evitar que se actúe como se ha hecho ahora. Afortunadamente ha terminado de manera satisfactoria, pero no estaría mal evitar riesgos y consecuencias gravosas.”

Alkate jaunak (BILDU): “Guk teknikoen irizpideak jarraitu ditugu, gu baino gehiago dakitelako eta horrela jarraituko dugu. El que se haya llegado a un acto de conciliación sin que se haya celebrado juicio es buena señal. Supongo que los pagos en B no estarán recogidos en el acto de conciliación...”

#### POLITIKOEN ASIGNAZIOAK

Malu Valles andreak (EAJ): “La asignación a los grupos políticos no es en concepto de sueldo, pero tenéis razón. Yo lo desconocía. De cara a los presupuestos de 2013, se estudiará. Habrá contención de gasto como lo hay en todo.

Enpresa batzordeko ordezkariak eskerrak ematen dizkie udal taldeei erantzunak emateagatik.

Publikoaren dagoen pertsona batek esan du positiboa dela jendearen iritziak entzutea, baina udalaren eskuduntzak direnak direla eta kolaborazioa eskatzea ondo dagoela dio, baina ezin dela eraso moduan planteatu. Jarraian esan du: “sindikatuak langileen eskubideak defendatzen dituzte eta zilegi da, baina kontutan izan behar da erabakiak nondik datozen eta horiei aurre egiteko denon elkarlana behar da eta indar gehiago egin. Ondo dago norberaren eskubideak defendatzea, soldata izoztuta geratu delako. Saihestu ezina da. Hori horrela izanik, gainontzeko beste sektoreak ere izorratu egin behar dira?. Indar gehiago jarri behar da eskubideak defendatzeko.”

Udalaren enpresa batzordeak: “Alderdi politiko denak ados jarri behako zinateke planto egiteko.”

#### DOLAREA

Lehen gai honi buruz hitz egin duen pertsonak: “Nik ez dut laguntza eskatu, baizik eta informazioa. Todo empezó porque el PNV no daba dinero para el hotel.”

Alkate jaunak (BILDU): “Gu saiatu gara zuen alde laguntza ematen.”

Malu Valles andreak (EAJ): “Creo que la situación es terrible. No es el cauce ni el momento. Cuando queráis me llamáis.”

#### ENPRESA BATZORDEAK ZORIONAK EMATEA

Enpresa batzordearen ordezkaria: “Como lo cortés no quita lo valiente, queremos desearos que paseis bien las Navidades con vuestras familias.”

Segidan udal taldeentzako oparitxo bat ekarri dutela esan du eta talde bakoitzari ikatz-poltsa txiki bat eman dio.

Eta tratatzeko gairik ezean, bilera arratsaldeko zortziak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.